

Asier etxera ↗

GRADU ERREGRESIORIK EZ!

etxerako bidean OZTOPORIK EZ!



Arratsaldeon eta eskerrik asko gaur manifestazio honetara gerturatu zareten guztiei!

Berriz ere euskal presoen etxeratzearen aldeko oztopoak eta erasoak. Berriz ere herri honek behar duen konponbidearen aldeko bidean atzera urratsak. Berriz ere, Auzitegi Nazionala bezalako salbuespenezko epaitegi batek bere mendeku gosea erakutsi nahi digu.

Azken 2 urtetan urrats garrantzitsuak eman direla ezin da ukatu. Urruntze politikaren amaieraren atarian gaude, 35 urtez 16 hildako errepideetan eta sufrimendu izugarria eragin duen politika anker baten amaieraren atarian, alegia. Urrunketak ardaztutako aro historiko bat itxiko dugu eta ez dago esan beharrik, alde horretatik, oso positiboa dela egun, euskal presoak Euskal Herriko espetxetan egotea. Lehenik eta behin, senide eta lagunentzat bukatu direlako kilometro amaigabeak...Bigarrenik hemen egoteak, esan nahi du, Espainiar Estatuko hainbat lurraldetako espetxeetan askatasunik gabe egon diren dozenaka urteetan aplikatu izan diren irizpideez haratago, bestelako irizpideak aplikatu behar direla gaur egun hemen, Euskal Herrian.

Asierrek ia 23 urte daramatza espetxean, urte gehienak baldintzarik gogorrenetan. Urriaren 6tik Martuteneko Espetxe Tratamenduetako Batzordearen arabera, legea eskuan hartuta baldintza guztiak betetzen zituelako, Eusko Jaurlaritzak 3.graduan jarri zuen, inongo arazorik gabe eta legeak dion bideari jarraituz, birgizarteratze fasean aurrera eginez. Eta Auzitegi Nazionala bezalako salbuespenezko organo juridiko batek, garaileen eta garaituen arteko eztabaida argi eta garbi markatzeko asmoz, Boltioren eta beste guztien etxerako bidea oztopatu nahi du. Euskal presoek aurka garaile eta garaituen kontakizun hori inposatzea lortzen ez duten bitartean, ez dute gelditzeko asmorik.

Tamalez, Boltioren ez da kasu isolatua. Eusko Jaurlaritzako barne sailak onartutako ia 3.gradu guztiak sistematikoki errekurritu ditu Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak eta Boltiorekin gertatu bezala, hainbatek espetxera itzuli behar izan dute. Azkena atzo, Ainhoa Barbarin Urretxuarra.

Ez du zentzurik beren legeak bihurritzen jarraitzeak, legeria bera ez betetzeko eta, are gehiago, presoek egoera bera zigortzeko funtsezko helburu gisa, ez bada behintzat mendekuan oinarritutako jarrera bat mantendu nahi dutelako eta konponbide orori ateak itxi nahi diotelako.

Gaur berriz ere hemen batu gara egoera hau eta Fiskaltzaren eta Audientzia Nazionalaren jarrerak salatzeke. Baita, Asierrek etxean behar lukeela argi adierazteke. Behar den guztietan aterako gara kalera. Gehiago ere esan nahi dugu. Herri honetan ezingo da aurrera egin, ezingo da elkarbizitza integralik eraiki, baldin eta presoek korapiloa askatzen ez bada. Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxean behar ditugu etorkizunari eta elkarbizitzari aurrez aurre begiratzeko.

Hortaz, ekar ditzagun behingoz etxera Luis, Popi, Unai, Asier eta beste guztiak!

Azken presoak etxeratu arte hemen egonen gara!

Gradu erregresiorik ez!

Etxerako bidean oztoporik ez!

Oharra: Bukatzeko gogoan hartu data bat. **Apirilaren 15ean Sakanako Etxera Eguna ospatuko dugu Etxarrin.** Datozen egunetan emanen dugu egitarauaren berri. Zabaltzen deialdia lau haizetara eta animatu parte hartzera! **Eskerrik asko**